

Oposizio parlamentariak bat egin zuten Alliren Gobernuaren kontra

Foru Parlamentu berriaren lehen plenoan bakarrik gelditu zen UPN

Nafarroako Gobernuaren ahulezia agerian gelditu zen Foru Parlamentuak atzo egin zuen lehen osoko bilkuran, sozialistek NUPeko errektore berriaren izendapenaren kontra aurkeztu zuten mozioak aurrera egin bait zuten EA eta IUren botoekin. HB ez zen plenoan azaldu.

A.U. / IRUÑEA

Nafarroako Gobernu osatu zenetik bere lehen osoko bilkura egin zuen atzo Foru Parlamentuak. Nafarroako Unibertsitate Publikoko errektore berriaren izendapenari buruz PSN-PSOEek aurkeztu zuten mozioaren eztabaida eta bozketan ikusi ahal izan zenez, UPNk zailtasunak izango ditu bere asmoak gauzatzeko Parlamentuan laguntza gehiago lortzen ez dituen bitartean, sozialistek EA eta IUekin bat eginez gero eskuindarrek baino boto gehiago dituzte eta.

Jakina denez, Alliren Gobernuak Pedro Burillo NUPeko errektore ohia kargutik kendu zuen duela hilabete eta Alberto Gonzalez izendatu zuen haren ordez. Oposizioko alderdi guztiak erabaki horren kontra azaldu ziren orduan eta atzokoan ere Gobernuaren jokaera gaitzetsi egin zuten. Sozialisten mozioan Burilloren kargugabetzea baliorik gabe uztea eta errektorearen izendapena berriro egitea eskatzen zitzaion Gobernuari. Sozialisten ustez, errektore berriaren hautaketan parte izan

Kontu Ganbararako hautagaiak ez dira ados jarri IU eta HB

A.U. / IRUÑEA

UPN, IU eta HB alderdiak ez dira ados jarri Kontu Ganbararako eta Madrilako Senaturako aurkeztuko dituzten hautagaiak buruz. Hautagaiak aurkezteko epea gaur eguerdiko hamabietan amaituko da eta, alderdi horien arteko akordio ezean, PSN-PSOE eta EAren kandidatek dituzte aurrera egiteko aukera gehienak. Gogoratuko denez, sozialistek Carlos Erce proposatu zuten Kontu Ganbararako buru izateko eta EAk Estebe Petrizan aurkeztu zuten senadore kargurako.

UPNk eta HBk, bakoitzak bere aldetik, IUekin akordio batera heltzeko saioak egin zituzten. Abertzaleak IUren egoitzan izan ziren, baina bi alderdietako ordezkariak ez ziren ados jarri, Martin Landa foru parlamentariak jakin erazi zuenez. Kontu Ganbararako Patxi Tuñon da IUren hautagaia, baina HBren iritziz ez da hori hautagai aproposena, «IUekin lotura gehiegi duelako» eta ez delako «IUkoek dioten bezain independentea».

UPN Tuñonen kandidatura apoiatzeko prest azaldu zen, IUk



Alli lehendakari dela egiten den lehenengo osoko bilkura izan zen atzokoa. JOXE

✓ **PSN-PSOE, EA eta IUren botoek bat egin zuten, 24, UPNk dituen 20en kontra. HBk ez zuten atzoko plenoan parte hartu.**

beharko lukete bai talde parlamentari guztiak eta baita NUPeko gobernu batzordeak ere.

Mozioak aurrera egin zuten PSN-PSOE, EA eta IUren botoekin. Guztira aldeko 24 boto jaso zituen, UPNk dituen 20 botoak baino gehiago alegia. Herri Batasunak ez zuten parte hartuko atzoko plenoan.

Gobernuak ez dago mozioa horren eskaerak betetzera behartuta, baina

politikoki esanguratsua da, kontutan izanez gero Juan Cruz Alli berak lehendakari kargua hartu zuenean agindu zuena. Lehendakariak orduan bere alderdiaren egoera Parlamentuan «ahula» zela aitortu zuen eta bere Exekutiboak edozer erabakitzerakoan Parlamentuko gehiengoaren nahia aintzat hartu beharko lukeela azpimarratu zuen.

Mozioaren eztabaidan alde zuzeneko argudioak entzun ziren. Oposizioak Burilloren kargugabetzea «erabaki politikoa» izan zela salatu zuen eta izendapen berria egin zen modua kritikatu zuen.

Juan Cruz Allik esan zuenez, PSOEek Burillo izendatzean jokatu zuen bezalaxe jokatu du UPNren Gobernuak oraingoan. Errektore berria bere alderdiarentzat «konfiantzako pertsona» dela onartu zuen, baina errektore aldatzeko sakoneko zioa NUPen funtzionamendu kasikarra izan dela ziurtatu zuen.

IUK Hirugarren Mundura Nafarroako Aurrekontuen % 0,7 bideratzeko egin zuen proposamena ez zen onartu, UPNk kontrako botoa eman bait zuen. Sozialistak abstenitu egin ziren eta EAk bakarrik eman zuten ezkertiarren eskaeraren aldeko botoa.

Parlamentuaren osoko bilkura hasi zenean Gabriel Urralburu lehendakari ohiaren jazarlekua hutsik zegoen, baina lehen bozketa egin aurretik azaldu zen eta ikusmin handia sortu zuen bere agerraldiak.

Bost euskal preso politiko aske ipini zituzten atzo

BILBO

Mikel Beloki Iribar, Jose Luis Muñoz Rodriguez, Iñake Kortadi Alustiza, Goio Elkorobarrutia Aldabe eta Cesar Rodriguez Sainz de Zaitegi euskal preso politikoak askatu zituzten atzo, Amnistiaren Aldeko Batzordeek jakitera eman zuten.

Lehenengo hirurak Donostia-ko Antiguoko auzokoak dira eta batera atxilotu zituzten 1990eko martxoaren 1ean. AABBEk atzo igorritako ohar baten bidez adierazi zuten, oraindik ez zuten ezagutzen epaiaren edukina, baina halere aske uzten zituztela uste zuten.

Elkorobarrutia eta Rodriguez dagokienez, lehenengo Gatzagako da eta bigarrena Gasteiztarra. Biak ere aske utzi dituzte, badaezpadako gartzelaratzeko egoeran lau urte eman dituztelako, epeak gehien bezala agintzen duena. Elkorobarrutia Goardia Zibilak atxilotu zuen 1987ko azaroan, eta Ciudad Realeko gartzelan egon da askatu duten arte. Rodriguez Sainz de Zaitegi 1987ko azaroaren 5ean atxilotu zuen Polizia Nazionalak, eta torturak salatu zituen. Carabanchel, Alcalá, Herrera eta Zamorako gartzelatan egon da askatu aurretik.

Antiguoko hiru preso ohie Se-

villako gartzelan ihesaldia prestatzea leporatu zieten. Poliziaren bertsioaren arabera, helikoptero bat bahitzeko asmoa zuten, patioan zeuden presoak bertara igotzeko. Mugara heldu aurretik mendian egindako gordeleku batean egongo liriteke egun batzuetan, ondoren zodiac batean igota muga igarotzeko, beti ere Poliziaren arabera. Kasu honen epaiketa duela aste batzuk izan zen Madrilko Auzitegi Nazionalan eta akusatu batzuek ukatu zuten gertaerakin zerikusia zutenik.

Atzo bertan, Antiguoko Amnistiaren Aldeko Batzordeak ongiatorri ekitaldia eskainiko die askatu dituzten auzoko hiru presoiei, datorren larunbatean arratsaldeko zazpi terdian. Ondoren, manifestaldia egingo da auzo donostiarrean.

Bestalde, AABBEk Trintxerpen eta Pasai San Pedron 'Herriari itzuli, presoak kalera' izenburuaz, euskal preso politikoen alde egiten ari den astearren berri eman zuten.

Bi herriotako AABBEk azpimarratu zuten «jendearen eta elkarrean partaidetza handia», bai ekitaldiak prestatzen eta bai aurrera eramaten, «eta horrek adierazten du herri hauen atxekimendua presoekiko».

Hilaren 21ean emango da ezagutzera 'Ekaitza' astekariari ezarri epaia

BAIONA

Beste epaiketa bat burutu zuten atzo 'Ekaitza' astekariaren kontra Baionan. Poulou Urruñako auzapezak eta Lapurdiko auzapezen elkarreko lehendakariak astekari abertzalea auziperatu zuten «pentsatzera utzi nahi izan duelako, legeak ez dituela errespetatzen eta azpikoak erabiltzen dituela herrian».

Udal Batzarreko 15 kide, Poulouren alderdikoak eta Ekaitzaren aldekoak hor ziren, berrogeitamar bat lagun. Urruñako jendea ere etorria zen. Beñat Elizondo zinegotziak, Poulouren aurkakoak, bere lekutasuna eman zuten. Azken hilabete hauetako afera batzuk, hala nola Prefetako eraikuntza baimenen kentzea, aipatu ziren. Pouloukideek, be-

re lehen ordezkariak bereziki, Ekaitzak jakitera eman puntu eztabaidagarri batzuei buruz mintzatu ziren.

Prokuradoreak «Legearen ezarpen zehatza» eskatu zuen Yann Choucq 'Ekaitza-ren' abokatu britainiarrek hitza hartu baino lehen. Hau 'Legehauste' batzuen frogatza saiatu zen, ordainagiriak aztertuz, hala nola azaroan hasi lanak herriak otsailean ordaindu zituela eta eraikuntza baimenak ekainean baizik emanak, hasieratik beharko zirelarik. Poulouren abokatuak 'difamazio' bideak aipatu zituen eta 'Poulouren ohorea' defendatu behar zela eskatu zuen. Auzapezarentzat 'libera sinbolikoa eskatu zuen'. La-coste anderea Auzitegiako presidentek azaroaren 21ean emango dela jakitera epaia agertu zuen azkenean.



BILBOKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE BILBAO

ASTEBURUKO IHARDUERAK

Azaroak 8, Ostirala
ABESBATZAK OSTIRALERO
IPAR-ALDE - Derio
EUPEME DEUNA - Bermeo
ARS VIVA - Bilbao
Bidebarrietako Liburutegian
Arratsaldeko 20.00etan

Azaroak 10, Igandea
Goizez: TXISTULARIEN
UDAL BANDA
Kalejira Uri Zaharreen eta Kontzertua San Antongo Elizpean.
12.30ean: MUSIKA UDAL BANDA
Kontzertua Areatzako Kioskoan

SAILEKO ORDEZKARIA
KULTURA ETA TURISMO SAILA



GETXOKO UDALA

ERROMOKO «NAGUSIEN ETXEAN» HAUTESKUNDEAK

Erromoko Eguneko Etxearen Batzorde Zuzendarirako hautagaiak aurkezteko epea astelehenean, hilak 11, iganderate, hilak 17, luzatuko da. Hauteskunde eguna abenduaren 4ean izango da. Batzorde Zuzendaria 10 ordezkari osatuko dute, eta Nagusien Etxeko erregistroan inskribaturik dauden bazkideen artean aukeratuak izango dira.